

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### KULTURA ETA KIROL SAILA

**305/2022 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa. Zehaztea Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 18ko 43/2022 Foru Dekretuan zehazten diren kirol jarduerak bete behar dituzten baldintzak, 2022ko ekitaldirako lehentasunezko mezenasgo jarduera jotzeko**

35/2021 Foru Arauak (abenduarien 23koa, irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzkoa) ezartzen du sektore pribatuak lehentasunezko mezenasgo jarduera edo programak finantzatzen parte hartzeko araudi esparrua.

Hala, bada, 35/2021 Foru Arau horren 31. artikuluan 1 atalak ezarritakoa betez, Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 18ko 43/2022 Foru Dekretuak xedatzen ditu zeintzuk izango ziren lehentasunezko mezenasgo jarduerak 2022rako. Horien artean dira 3. artikuluan zehazten dituen kirol jarduerak, betiere, arau horrek ezarritako betebeharrak ez ezik, "Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak ezarritako baldintzak" ere betetzen badituzte.

Beraz, eta 43/2022 Foru Dekretuaren 3. artikulua berak emandako gaikuntzaren arabera, ezinbesteko da artikulua horretan aipatutako kirol jarduerak bete behar dituzten baldintzak ezartzea, 2022ko ekitaldirako lehentasunezko mezenasgo jarduera jotzeko.

Aginduzko txostenak ikusi dira, horregatik eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

##### 1. artikulua. Xedea

Erregulazio honen helburua da xedatzea zein baldintza bete behar duten Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 18ko 43/2022 Foru Dekretuaren 3. artikuluan zehazten diren kirol jarduerak, 2022ko ekitaldian lehentasunezko mezenasgo jardueratzat har daitezten.

##### 2. artikulua. Jarduera mota bakoitzerako baldintza espezifikoak

1. Lehentasunezkoztat jo ahal izango dira Arabako Lurralde Historikoko kirol klubetako emakumezkoen talde edo atalen lehiatzeko jarduerak, baldin eta lurralde, autonomia, estatu edo nazioarte eremuko lehiaketa ofizialetan parte hartzen badute.

2. Aurreko atalean adierazitakoez gain, lehentasunezkoztat joko dira honako baldintza haue-takoren bat biltzen duten kirol jarduerak, kirol lehiaketak barne:

a) Emakumezkoena izatea. Kirol jarduerak emakumezkoenak direla ulertuko da, emakumeek baino ezin dutenean parte hartu edo gehienbat emakumeek parte hartzen dutenean.

b) Sustatzea emakumezkoen parte hartzea, betekizun hori betetzat emango da, baldin eta beren deialdian eta publizitatean, emakumezkoek parte har dezaten, dei berezia eta adieraz-garria egiten bada.

Kasu horretan, gainera, eskatuko da jarduera horrek emakumeen bistaratzea eta errekonozimendu soziala sustatzea edo genero-estereotipoen haustura bultzatzea, tradizioz gizonen parte-hartzearekin lotutako eremuetan emakumeek parte hartuz.

Dena dela, aurreko atalak aipatzen dituen jarduerak Arabako Lurralde Historikoan egingo dira eta lurraldean eragin esanguratsua izango dute.

**3. artikulua. Baldintza orokorrak**

Pertsona fisiko edo juridikoek 2022ko ekitaldian euren jarduerak lehentasunezkoztat jotzeko interesa badute, 2022ko abenduaren 1a baino lehen egin beharko dute eskaera Kultura eta Kirol Sailean.

Eskaerarekin batera lehentasunezkoztat jotzea nahi den jardueraren proiektua aurkeztuko da. Proiektuan dena delako kirol-klubaren edo -elkartearen, edo jarduera beraren diru sarreren eta gastuen aurreikuspena jasoko da. Lehentasunezko jarduera kirol-klub edo -elkarte bateko emakumezkoen atalerako eskatzen denean, diru sarreren eta gastuen aurreikuspenak bereizirik adieraziko ditu kirol- klubari edo -elkarteari dagokion aurreikuspenak eta kasuan kasuko emakumezkoen atalarenak direnak.

**4. artikulua. Ebazpena**

Eskatutako baldintzak betetzen badira, Kultura eta Kirol diputatuak egingo du jarduera lehentasunezkoztat jotzeko adierazpena.

Azken xedapen bakarra

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 15a

*Kultura eta Kirol Saileko diputatua*

*ANA M. DEL VAL SANCHO*

*Kirol zuzendaria*

*ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ*